


# Zentralismoaz eta multikulturalismoaz



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Luaz pentsatu da giza harremanak sistematikoki aztertzerakoan atomoen irudiaren bidez pentsatu behar zirela, erran nahi baitu zentro eta periferiarekin. Eskema teoriko hori arrunt eraginkorra izan da (eta bada ere oraino) batez ere botere harremanak ulertzeko jendartean. Adibidez, ikerketa soziologiko batek erakuts dezake hiri erdiguneetan kontzentratzen direla indar sozio-, ekonomiko-, politiko-kulturalak, eta inguruetan, frantsesez *banlieue* deitzen diren horietan, bazterturik daudela klase sozial apalenekoak, immigratuak, ahal gabetuak. Beste adibide bat emateke, froga daiteke literaturaren sisteman zentroan daudela obra eredugarriak, irakurleagoak, erakundeek edo merkatuak kanonizatuak, eta periferian bada-goela bigarren mailako literatura bat. Espainia edo Frantzia bezalako kultur eremu nagusietan, atomo literarioaren nukleoa identifika daiteke, eta euskal literatura bazterreko literatura erregionalistan sailkatu, elektroiz ezdeusa balitz bezala. Eta euskal literaturaren baitan berdin koka daiteke bizi literarioaren zentroa Gipuzkoako aldean, autore eta kritikari ospetsuren inguruan, Iparraldeko ekoizpena bazterreratua ikusiz.

Zentro-periferia kontzeptuen bidez pentsatzeak badu alde txarrik: modu hierarkikoan aztertzen ditu giza errealtateak, eta eragileak bultzatzen ditu beren egitateak menperatzaile-menderatu harreman moten arabera gauzatzeko, giza harreman oro botere edo borroka harremana bailitza. Bizkitartean, zentro-periferia ideiek badute alde onik ere bai, bereziki kultur eremuan: “zentro” bat definituz, eredu bat zehazten dute, baikor eta bultzatzaile izan daitekeena. Ezen, nolako itxura zukeen konparazio euskal literaturak eredu sendorik ez bazuen eduki, gureari hedapen unibertuala eman diona?

Beste eskema teoriko baten bidez uler daitezke haatik jendartearen baitako harat-honatak, kontutan hartuz mundu globalizatuan sartuak gaudela denok: hau da, pentsatzea zentrorik ez dela gehiago, edo ez dela hain esanguratsu zentroak identifikatzea, azken finean periferiak baizik ez direlako gelditzen mugarik gabeko mundialitate honetan. Hemen, eta batez ere kultur alorrari dagokionez, Edouard Glissant martinikarraren filosofiari egiten diot erreferentzia: hark dio zentralizazioaren garaia bukatua dela eta

artxipelagoz osatua dela mundu berria. Gertatzen dena da zentrorik ez izanez gehiago, ustekabeko elkarreraginak gertatzen direla kulturen artean: hizkuntzak nahasten dira, arte ereduak ere bai. Glissantek “kreolizazioa” deitzen du fenomeno hori, eta bere ustez ongi hartzekoa da, kulturak iraunarazten dituelako bestelakatu.

Zentrorik gabeko mundua biziki erakargarria izan daiteke: eredu akademikorik ez, askatasun osoa ezberdintasun eta nahasketa guziak aldarrikatzeko, muga guzietatik harat. *Banlieue* handia baizik ez daiteke mundua. Baina nahaskeriaz nahaskeria, ez ote ginateke itoko multikulturalismo artifizial batean, gure benetako ezberdintasun (edo nortasun) aberasgarriaren kaltean? Nahaskeriaz ez ote gintuzke uniformizazio hits batera eramanez, mundializazio basenaren onetan? Arrisku hori gogoan, eusko zentratuak egon beharko genuke, lehenagoko eskema teorikora itzuliz...

Blaise Pascalek *Gogoetak* haietan zioen ildotik, zentroan ala zirkunferentzian murgildu nahi dugunez, hara nolako galdera zaila egin beharra diogun gure buruari. ●